




Gure esku dago

ingurumena.net
*Gure esku dago*

EUSKO JAURLARITZA
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



# KLIMA-ALDAKETA GAINEAN DUGU...

Horregatik, Klima Aldaketaren ondorioak murrizteko egiten dugun ahalegina da egin dezakegun inbertsiorik onena. Horrela bakarrik lortuko dugu klima-aldaketak etorkizuneko ekonomian, ingurumenean eta gizartean izango dituen ondorio kaltegarriak murriztea.

Hala uste du Eusko Jaurlaritzak, eta horrexegatik fenomeno honen aurkako borrokak du lehentasunik handiena bere ingurumen-agendan. Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa sortuz, guztion artean $CO_2$ emisioak murriztearen alde lan egingo dugu, klimaren aldaketaren ondorioak gutxitzen laguntzeko.

Natur baliabideak galtzea

Airearen kalitatea eskastea



Ekosistemak eta bioaniztasuna galtzea



Baliabide hidrikoak kutsatzea







Hondamendi naturalak

Desertifikazioa

Uholdeak



Suteak

Itsas maila igotzea

Itsasoaren tenperatura igotzea

# AURRE EGIN NAHI BADIOZU: KONTSUMO IRAUNKORRA

Klima Aldaketaren aurkako borrokan, beharrezkoa da gizarte guztiak aktiboki parte hartzea. Ez bakarrik erakundeek. Ez bakarrik enpresek. Baita herritar guztiek ere, asko egin baitezakete.

Arazo honek benetan duen garrantziaz jabetu behar dugu. Eta gure bizimoduetan kontsumo arduratsuaren ohitura barneratu. Hori da Klima Aldaketari aurre egiteko dugun modurik eraginkorrena eta, horren ondorioz, baita dugun tresnarik baliagarriena ere oraina babesteko eta etorkizuna bermatzeko. Ekiteko garaia da. Ama Lurrari zor diogu. Beraz:



Erakuts ezazu **argia** zarela eta ezinbesteko ENERGIA bakarrik gastatu.



Gutxitu, birziklatu eta berrerabili zure **etxe-hondakinak**. Eta batez ere, erosterakoan, egin leku zure poltsan KONTSUMO ARDURATSUARI.





Saia zaitez dena **biribil** atera dadin, GARRAIO publikoa edota bizikleta erabiliz, autoa partekatuz edo oinez ibiliz.

Itxi ezazu xahuketaren **iturria**. Ez ezazu behar duzun URA baino tanta bat gehiago kontsumitu.



Ez ezazu ahaztu: Gure esku dago.

Argibide gehiago nahi izanez gero: ingurumena.net